


NAFAR - IZKUNTZAN ORRIA

GURE AMA LURRA

Euskalerriko pottoka zaldiak eta Paul Dutournier, Sara'ko alkatea



Euskal pottoka zaldia.

Beñen Donibane Lehenen, adiskide benetakoak ta euskalazale jatorria. Bera-ekin batean, Ipar Euskale-rrarian barrera ibilia nago. Maite zuan bere lurra ta gure gauzetan mintzatzeko. Batez ere bere Xiberroa mina zeukan. Makila bat artuta, ofiez ibiltzen zan, batzuetan Irati'ko basoan, Iturri gutxielako urak edanez; atsegiñena OS-KIA'koa zeukan.

Beñen esan zidan SARA'ko alkatea ta pottoka gure zaldiekin gertatutako egitazio ipuia. Zoragarria iduritu zitzaizkion. Gelditu gifian, len bai len, nik gizon ori ezagutuzkotan. Bafian gure Joakin ARA jatorria, bat batean il zaigu oso gazterik.

Dana dala, nola gaia oneri buruz lana bat egiteko asmoan nenbilen SARA'ko alkateari eskutitz bat egin nion. Eta or nuen bera agertzen zaiten OREXAN'larunbate alsalde batean; gizon sendoa, alala, azkarra ta begi urdi-fekin; bere euskera garbia da. Ez degu nolanaiko gizona. Frantziako telebis-tan amabi al diz agertu da. Ogeitasei urte egin ditu SARA'ko alkate bezala.

Maite du benetan bere erria eta euskera. "Euskal-zaletan Biltzarra" ren bigarren leondakaria degu. SARA'ko Errikoetxean egindako bileretan beti euskera erabilili du. Ba dauka idatzita liburuxka bat, "SARA'ko ERREPUBLIKA" izenekoa. Beñen baño geia gotan bere erri zoragarri onen alde, lana egiten salatu da. Bere asmo oiek elzagunak dira. Beñen, gauzako lanean zebilt-

zen txapelketa asmatu zuan, kontrabandisten saria alegia. Erri onek ba du ogeita hamar kilometroko muga.

Orain berriz, denetan ederre-rena; pottoka gure mendietako zaldien alde egin duan lana. Txikia zala, oitua zegoan, pottoka gainean ibiltzen, nunal ta nolanal. Erri-ko festetan ere "antzara jo-kuia" egitera pottoka gainean joaten ziran gazteak. Oraindik gaur, erretora berria ta gotzala agurtzera, pottoka gainean ateratzen zaizkiete erriarrak.

1937 garren urtean, "Ramuntcho" film egin zuten-ean, berak ere eskatu zuan, mendiko pottoka tartetan sartzea.

Pottoka abere bikaina ta polita da, bizarduna, azkarra ta basatia. Arrazoiak- zion esatera zarrak "Nai al dezu pottoka arrapatu?", sar-tu lozu buztanean gatzia". Larun'go larretan ikusi bear dira zaldi auek askatasun osoan bizitzen, multzoka.

Azkenean berri mingarria eman zioten SARA'ko alka-teari. Zaldi erosleak zeto- zela ta txorixuetara Italia'ra eramaten zituztela. Len, be-ti, San Fermiñetan saltzen zituzten; Valenzia'ra erama- teko ta anan-jategiak joratzeko. Gure mendietako euskaldunak, egur ika- za ta pottoka zaldiak San Fermiñetara saltzera joaten ziran eta artutako diruare- kin festa egiten zuten. Bal- nan indarrezko tresnak agertu ondorean ez zituzten geiago zaldi txiki oiek ta or- duan gelditzen ziran baka- rrik txorixua egiteko. Zaldi auen alde zerbait

egin nalan, etorri zaizkio as- moak burua, gure SARA'ko alkateari. Lendabizi "ELLE" frantesez aldizkarian, Ana Maria Casalla idazlearen bi- tarte, tragardia pottoka saltzeko jarri zuan; lareun franko berri urte betetako zaldi ale bakoitzentzat eska- zen du. Txorixua egiteko, berreun frankotan saltzen zituzten.

Orren ondorean, pottoka zaldiak agertuz tarjetak egin arazten ditu milaka. SARA'ko festetan, Amerika' ko gisan, zaldi "rodeo" bat zuzentzen du. Urtarako La- run'go pottoka gutxiak ba- tean errija jeltzen ditu.

Pompidou Balon'ara dato- rrela, 1970 garren urtean ekañaren amabian, pottoka eskeintzen dio. Geroago bes- te bat Monako Prinzipea- rentzat dauka. Onek berriz ludiko aberazalen lendakari dalako, 0'40 frankoko sello bat argitaratzen du potto- ka bat agirian dula ta onen atzean Larun mendti zabala ikusten dala.

Pottoka zaldien alde egin- dako lana onen ondorean, ara, nun agertzen zaizkion etxean bost mila eskutitza. Bi urterterdi bear izan zuan danei erantzuna emateko.

Pottoka zaldiak ikustea- ren, SARA'ko bidea, abe- rezalak artzen dute. Jakina abereak mendian izaki ta ikusteko ez daude errex. Orduan gure Paul Dutour- nier jaunak, 42 ektareako txitotki bat edo "reserba" antolatu du, Larun azpiko mendti batean, nai dutenak ikusi dezaten.

Maite zituhalako ta Euska- lerriaren alde propaganda

egitearren, pottoka zaldien alde lana egiten ari zan SA- RA'ko alkatea. Balnan orain, diru aldetik onuragarria, izan da bere lana. Nunaitik eskatzen dizkiote pottoka zaldiak.

Pasteur Institutoko era- kasle ospetsua Calas jauna oartu da, biotzak aldetzeko orain egiten dituzten eba- kuntzetan edo operazioetan, aberetan dan odoletik obo- rena, pottoka zaldien dala. Orduan "serum antilympho- cytaire" egiteko gure potto- ka bear. Ortarako, Barnard erakasle ospetsua, Paul Du- tournier'ekin egona da.

Aurten gainera, Paris'ko izen aundiko etxeak, opari bezela, pottoka zaldiak es- keintzen zituzten.

Frantzi'ko zaldi lasterke- tegtian asiak dira pottoka agertzen. Lenengo saria ere irabazita dauka gizon batek pottoka gainean. Mendian dagoen zaldi ori, ikusi lei- ke Paris'ko Autteit laster- ketegian.

Eskoletako erakasle bat- zuak, Britaina' n pottoka za- ldiak ibiltzen dituzte beren ikaslen jolasetan. Ia noraino joan dan Larun'dik gure za- ldi. Rossif zine egileak, film bat Euskalerriari bu- ruz antolatzen ari da.

Bere film ortan ikusi deza- ten, nun bizi dan zaldi be- rexi bat askatasun osoan. Asiera eman nai lioke Eus- kelerrietako pottoka zaldiak agertzea.


Zaldi ori euskaldunaren antzekoa bai da.

Aurten gure pottoka lur- gintzaren Paris'ko perian agertu dute, Frantziako lur- gintza ministroak ontzat ta ofizialki artu du gure za- ldi.

Zaldi ori euskaldunaren antzekoa bai da.

Aurten gure pottoka lur- gintzaren Paris'ko perian agertu dute, Frantziako lur- gintza ministroak ontzat ta ofizialki artu du gure za- ldi.

Paul Dutournier'ek esa-



Pottoka beora bere umilakia.

Nunaitik eskatzen dituzte pottoka zaldiak. Batzuek loretegiatan jartzeko, bes- teak gasolinetegetan, bes- teak berriz jatxe ingurue- ta eta abar. Azkeneko lau urte auetan 1.600 pottoka- saldu dituzte. Urteko za- ldiak seireun franko berrie- tan ta beorak zortziureun frankotan.

Danetara, Ipar aldeko Euskalerriari ba omen dau- de 4.600 pottoka.

Frantzi'ko toki askotan asi- dira pottoka azitzen ta sor- tu dute pottoka zalen elkar- te bat. Danen buru Paul Dutournier daukagu.

Europa'ko saleroste bata- sunean, aue berriak irikit- zen zaizkio gure pottokari. Euskaldunak ba dauka es- natzeko garaia ta ikusteko zenen gauza ederrak dauden bere Euskalerrian. Nolz ar- duratuko ote da bere gau- zetaz? Begiak irikitzeko ga- raia da.

Paul Dutournier'ek esa-

ten zidan: "Naparroak zain- du ta ugaritu bear lituzke bere pottoka zaldiak". Na- parroa ta Euskalerria mai- te ditu benetan gure gizon onek. Euskalerriko pottoka zaldia ezagutu arazi du lu- di zabalean.

Lana ori berak egin du ta asko da. Alaxekoa izaki ere gure mendietako zaldia; kua- ternario garaikoa, ludian za- rrenetako, gure leitzetan margotua ikusten deguna. Siberian bakarrik dago onen berdina...

Len, Tillac artilariek egin zuan idazti bat pottokari bu- ruz. Ura ezik beste danak lo- zeuden. Gaur berriz pottoka- ren alde ta pottokaren bitar- tez, Euskalerriaren alde, Paul Dutournier'ek eginda- ko lana zoragarria da. Euska- lerriak gauza bat baka- rrik bear du altxatzeko, gi- zonak.

LATXAGA



Pottoka men diko lepoetan.

EUSKALERRIAN BARN

Ion Enbeita'ren euskal diskoa

Ion Enbeita Bizkaiko semea dugu, sortzez euskalduna. Muga-riko herrian jaioa. Bertsola- ria. Adar on bat enbor sendo batetik etorria; zergatik "En- beita" enborra betidanik bert- solaria izan ba zan, honen ada- rrek ere bertsolariak dira. En- beita deitua aditzez bereha- laxe nere gogora bertsolaritza ekartzen dit aspaldidanik.

Ion enbeita txikitatik ikasi- tako bertsolaria da eta hontaz gainera abeslaria (kantaria). Euskal disko bat badu berak egina: ION enbeita-Bertsol'ri eta Abestalar' du izena. Lau kantu dauka disko hontan gra- batua: Euskaldun' naiz, Emoi- dazuz eskua, Dirua, eta Horrela doa mundua.

CINSA etxeak argitaratua da. Disko hau eskatzekotan zuzen- bide hauetara eskatu: CINSA- Avda. Ejercito, 19-3. Bilbo- 14.

Tolosako «Euskal Amabostaldia»

Datorren sei garrenetik ogei- tabat garreneirano (Maiatzaren 6-tik 21-eraino) Tolosako hi- rian "TOLOSAKO LEHENEN- GO EUSKAL KULTURAREN AMABOSTALDIA" ospatuko da. "Euskal Kulturaren Amabostal- dia" hau Tolosako Kultura ei- karteak bertako Aluntamendu- ren babes eta laguntzarekin an- tolatu dute.

Beraz urrengo larrunbatan asiko da.

Euskal Kultura Amabostaldi- hontan gure Euskal Herri mai- tearen Kulturari doazkioten arazo, problema, xehetasun eta sfer guziak azalduko dira.

Alde batetik Euskal Artisten Erakusket'k izanen dira: Euska- l Arteari eta Euskal Pintu- rari buruzkoak. Beste aldetik Euskal Literaturaren Sariketak (Poesiak, Idazlanak, liburuak, eta.) Euskal Liburu eta Diskoa-

ren Merkaturia, Hitzaldiak eta Elkar-Hizketak, eta hauetaz gainera Jaialdiak (Festaldiak), Herri bazkariak, Omenaldiak, eta, eta.

Jaialdiak ugari izanen dira, eta Jaialdi bakoitzak bere egu- na izango du. Hala nola "Bert- solari eguna", "Dantzari egu- na", "Nekazari eguna", Euska- l Zine eguna", eta abar. Ama- bostaldi honek Euskal Herrian jaio eta bizi geranot, Euskal- Herria maite dugunoi dei bat egiten digu Tolosara amabost- egun pasatzeko izaten ez bada ere, guri komeni zaizkigun egu- netan hara joateko gutxienez bai.

Tolosa hor dago gure irufe- tik urbil. Donostiako bidean, datozen 6 egunetik 21 egune- raikoko egunetan euskaldunen zaiz denoien bere ateak eta biot- za irikita ditutelarik.

Gizona izitu zen, Baletz ta ezetz azkenean gizona- tue herriz Ameriketara onmentzen arrotziak patu

Nafartarra, euskalduna, zoaz egunen batez Tolosara gure euskal kultura ikasi beharrez!!

EUSKAL GAIEN LIBURU BAT

Apat-Echebarne jaunak ez du gure artean alipamen be- rezi beharrik. Guregandik hartu lezaken ahore guzia ba- no gehiago berekin du aspaldi. Sendagile ta euskaltza- Donostiako idazle naparra liburu berri batekin datorrik- bidera (1). Argitaldarien txartel baten bidez ukan mu- lehenbiziko berria. Gero, Donostian bertan eskuratu mu- garalan, beranduegi zen berri emalle bezala agertzeko. Be- rant bada berant, ez nuke liburu hontaz neure iritz- eman gabe gelditu nahi.

Euskal idazki zaharren biltzaile dugu, alde batetik "Larreko" haundiaren semea. Izen-ordekozat hartua du- hitzak berak holako zerbitu dakarkit gogora. Azterket- onik badu bere denboran egina, eta gai hontaz du lib- rueren sarrera. Hirurogei ta hamar orrialdetan gauza ja- kingarriak badira. Ofizialtasunetik oso idazki gutxi dato- kio euskarari; horregatixe jotzen ditut jakingarrien bezala a) Ezkabarte-ko herri gizonen p'ztar agiria; b) 1750-y Gotzaiaren artzai-dela; eta d) ixilkako ezkontza baten d- tormena.

Lehenbiziko zati hontan bertan herri hizkuntza alde- tik jakingarri dira XVII gn. mendeko bi euskal gutunak. Apez baten aurkako bertsuak (1828), kantu ezagun batzue- erakifak eta herriaren shotik bildutako gaiak euskal idaz- ki zaharren mailan ongi sartuak dira. Damurik ez digu- Irigaray jaunak maila hontan osotutako bilduma bat eman. Bigarren atalean, euskal-geiei buruz eta idazle batzue- berri emanez mintzo zaigu egilea. Antxiñako gertakizuna- eta izen ospetsuen zabaldundek ere badu bere garrantzia- nahiz maila oso ezberdinean egon lehen esandakoekin.

Hirugarren partean herri jakintza, folkloire gaiak, ikur- zen dira: ezki-doinu eta Baztango yoyak, sorginkeria d- haurren jostetak, esames eta bitxiakeriak. Etnologi al- rrean estimagarri, hauek denak.

Akatsak adierazteko garaian batasun baten hutsune- ikusten da, behar bada. Baina, alde hori neurtezarako- egilearen asmoa eduki behar da kontuan. Gaien alde- es duen lokarria, bilduma aldetik gaitundia da, han hemes- ka banatuak ziren jakintza baten saloak batean eskem- zen dizkigute. Nekezik gabe irakurtzen da, Caro Baroja- hitzaurre goxoa, erderaz liburu guzia bezala, bihotzak- haundi baten ele xamurra da.

Sagi

1).— A. Apat-Echebarne. "Noticias y Viejos Textos de la Lingua Navarrorum". Publicado por la Sociedad Gu- pucoana de Ediciones y Publicaciones S. A." 2 pgs.

AXULAR SARIA KONTUA

Baziren bi aur eta gelditu ziren bakarrik etxe batean Gau erdian aitu zuten asots batzuk eta gelditu ziren an- tziek eta pixke baten barnean aitu zuten zaldi asots ba- zuk eta atra ziren leyora eta ikusi zuten iru zaldi eta be- ze iru gizon gañean. Gelditu ziren arrituek eta atzina- ikusi zuten izar bat etxe bateko atera gaten eta hoiak e- teratu ziren sortu zela aur bat. Famili hori zen arras y brea eta aitu zuten bi mutiko hoiak bildots bana aur y brea giteko eta gelditu ziren gau guzian hari kasu bi- eta iten zuten otz aunitz eta etzuen zerekin tapatu eta z- zuten lastoa balzik, kuadra hartan baziren asto bat eta bi bat eta atsekin berotu zuten nolapaitere.

MARIA MILAGROS BARANDIAIN

14 urte. Elizondo.

GIZON BATEN KONTUA



Gizon batek nai adine arrotze prexitu yateko gutxi- tzen zuen bein. Bai yan ere ostatura gan eta amar es- zituen tripitazar artan. Orainduko ordea bat ere e- dainduko zituela ta ordainduko baño ordaindu gabe an- riketara gan zen.

Ameriketara amar urte pastute aberastute etorri- Bere zorrak klisk klisk egiten zuten biotzean eta ordain- bear zuela ta gan zen ostatu etxera. Ara bada erran- otalarik:

—Amar arotzetatik amar txita aterazen al ziren; on- amar olio izen ziren fite utean arotzte aunitz inen zue- amar urte bai mile olio, amasei mile txita, amaboz m- pezata ortxe nonbait.

Gizona izitu zen, Baletz ta ezetz azkenean gizona- tue herriz Ameriketara gan omentzen arrotziak patu

Maria Cruz Santxotena

ERRATZU. 14 urte